

Kutxabank Errenta Finkoa Mistoa 30, Pentsio Fondoa

Inbertsio-politika

I) PENTSIIO-FONDOEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Pentsio Plan eta Fondoei buruzko araudiaren arabera, idatziz jaso behar da inbertsio-politikaren printzipioak ulertzeko balioko duen deklarazio bat.

Pentsio Fondoen inbertsioek, edozein izanik ere haien inbertsio-politika, kontuan hartzen dituzte merkatuaren gorabeherak eta baloreetan inbertitzeak dakartzan arriskuak. Beraz, partaideak kontuan izan behar du partaidetzaren balio likidagarriak gorabeherak izan ditzakeela, gorantz edo beherantz.

Seihileko txostenetan kontsulta daiteke fondoen zorroaren osaera xehea.

Erakunde kudeatzaileak inbertsioen kudeaketa utzi du Kutxabank Gestion IKESK SAUren esku (inbertsio-erakundea).

II) PENTSIIO-FONDOAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK.

Kudeatzailea: KUTXABANK PENTSIIOAK SAU

Gordailuzaina: CECABANK SA

III) PENTSIIO-FONDOAREN INBERTSIO-POLITIKA.

a) Fondoaren bokazioa: Errenta aldakor mistoa.

Gehienez ere ondarearen % 30 inbertituko da errenta aldakorrean, fondoarekin koherentea izango den inbertsio-bokazioarekin; gainerako ondarea inbertituko da nagusiki ageriko gordailuetan edo eperako gordailuetan, eta errenta finko publiko edo pribatua. Koiunturalki, eta gerora, % 2ean gainditu ahal izango da errenta aldakorraren gehienekoa, gehienez ere hilabeteko epe jarraituan.

Fondoak aktibo desberdinekiko duen esposizioa (aurreko paragrafoan adierazia) lortu ahal izango da aktiboetan zuzenean inbertituz, baita finantza-tresna eratorrietan inbertituz ere.

Kudeaketaren helburua.

Fondoaren inbertsio-politikaren xedea izango da batik bat partaidetzen balioa mantentzea eta inbertitzen duen merkatuek ematen dutenarekin bat etorriko den errentagarritasun gehigarria lortzea.

Pentsio-fondoak sustatzen ditu ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak [2019/2088 Erregelamenduaren (EB) 8. art.].

c) Inbertsioak hautatzeko eta estrategikoki banatzeko irizpideak.

Fondoaren inbertsioek kontuan hartuko dituzte Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Erregelamenduaren III. tituluko IV. kapituluaren adierazitako mugak (otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretua).

Fondoak herrialde emergenteetan inbertitu ahal izango du gehienez ere bere ondarearen % 5.

Euroa ez den dibisa batean izendatutako aktiboetan eginiko inbertsioak ez du gaindituko fondoaren ondarearen % 30.

Fondoak erabili ahal izango ditu finantza-tresna eratorriak, eratorrien finantza-merkatuetan negoziatuak, helburua izanik zorroak bere osotasunean edo zati batean onartutako arriskuak estaltzea; halaber, zorroa modu eraginkorragoan kudeatzeko inbertsio gisa erabili ahal izango ditu. Eratorrien merkatu antolatuetan negoziatu gabeko finantza-tresna eratorrien kasuan, haien helburu bakarra izango da fondoak onartutako arriskuak estaltzea, edo errentagarritasun-helburu zehatz bat lortzea.

c.1) Errenta finkoa.

Fondoak bere ondarea inbertituko du, zuzenean edo IKEn bidez zeharka, errenta finkoko tituluetan, publikoak eta

pribatuak, jaulkitzaile kaudimendunek jaulkiak, eurotan gehienak.

Errenta finkoko aktiboak estrategikoki kokatuko dira, modu koherentean fondoaren konpromisoen izaera eta iraupenarekin.

Fondoak inbertituko duen errenta finkoko aktiboek izango dute kreditu-kalitate handia (gutxieneko ratinga: A-) eta ertaina (BBB+ eta BBB- artekoa). Hala ere, gehienez ere ondarearen % 20 inbertitu ahal izango da kreditu-kalitate txikiko aktiboetan (BB- arte). Bestetik, gehienez ere ondarearen % 10 inbertitu ahal izango da kreditu-kalitatea aurretik zehaztu gabe duten errenta finkoko aktiboetan. Gerora kreditu-kalitateak behera egiten badu, erakundeak ahalik eta lasterren baloratuko du komenigarria den eraginpeko posizioak saltzea edo mantentzea, eta aurretik aipatutako mugek ondarearen % 10 gainditu ahal izango dute gehienez, fondoaren ondarea ahalik eta gehien babesteko.

Gehienez ere ondarearen % 3 inbertitu ahal izango da errenta aldakorrarekiko eta finkoarekiko alternatiboak diren aktiboetan, bereziki Hedge-Funds, Arrisku Kapitaleko Fondo eta Higiezinaren Sektoreko Fondoetan, alde batera utzi gabe beste aukera batzuk.

Ez da bazterzen inbertitzea merkatu arautuetan negoziatuetatik kanpo utzitako errenta finkoko baloreetan, baldin eta erakunde jaulkitzaileek egoitza soziala ELGaren herrialde batean badute, transmisio librea mugatuta ez badute eta beren finantza-egoerak ikuskatzen badituzte, eta, horrez gain, auditoreak erreferentziatzko azken ekitaldiari buruzko aldeko iritzia eman badu inbertsio-unean. Aktibo ez-kotizatuetan eginiko inbertsioak ez du gaudituko fondoaren ondarearen % 10ren muga, edo unean-unean legediak ezarriko duena, baldin eta txikiagoa bada.

Ez daude aurrez zehaztuta jaulkitzaileak (publikoa edo pribatua), baloreek kotizatzen duten herrialdeak edo merkatuak (herrialde emergenteetan inbertitu ahal izango da), errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupena, burtsa-kapitalizazioa edo sektore ekonomikoa.

c.2) Errenta aldakorra.

Fondoak gehienez ere bere ondarearen % 30 inbertituko du errenta aldakorrean, zuzenean edo IKEn bidez zeharka, fondoarekin koherentea den inbertsio-bokazioarekin. Koiunturalki, eta gerora, % 2ean gaudituko ahal izango da errenta aldakorraren gehienekoa, gehienez ere hilabeteko epe jarraituan.

Errenta aldakorrean inbertitzean, ez dira aurrez zehaztuko baloreek kotizatzen duten herrialdeak edo merkatuak (merkatu emergenteetan inbertitu ahal izango da), burtsa-kapitalizazioa eta sektore ekonomikoa.

c.3) Ingurumen-, Gizarte- eta Gobernantza-kontsiderazioak (IGG).

Pentsio Fondoak gizartearekiko inbertsio arduratsua sustatzen du bere zorroan, kontuan hartuz bereziki jasangarritasun-arriskua (IGG) inbertsio-erabakietan, jasangarritasun-arriskuen integrazio-politikan zehaztuta dauden hainbat jardun-lerro osagarriren bidez: hala nola bazterte- eta balorazio-irizpideen aplikazioa, tematiketan oinarritutakoak, aurkako inpaktuak eta jabetza aktibo bat gauzatzea.

d) Inbertsioen arriskuak, eta haien neurketa eta kontrola.

Merkatu-arriskua: arrisku orokor bat da, edozein motatako aktiboetan inbertitzeari dagokiona. Aktiboen kotizazioa finantza-merkatuen bilakaeraren mende dago bereziki, baita jaulkitzaileen bilakaera ekonomikoaren mende ere; jaulkitzaileak, beren aldetik, ekonomiaren egoera orokorraren eta herrialde bakoitzaren gorabehera politiko eta ekonomikoen eraginpean daude.

Zehazki, inbertitzeak arrisku hauek dakartza:

- Merkatu-arriskua errenta aldakorrean inbertitzeagatik: errenta aldakorrean inbertitzeak berekin dakar fondoaren errentagarritasuna inbertitzen den merkatuen aldakortasunaren eraginpean egotea, eta merkatu-arriskua handia da, horrenbestez.
- Interes-tasaren arriskua: interes-tasen gorabeherak eragina dute errenta finkoko aktiboen prezioan. Oro har, interes-tasak handitzeak eragin negatiboa du aktibo hauen prezioan; aldiz, tasen beherakadak igo egiten du haien prezioa. Zenbat eta handiagoa izan errenta finkoko tituluen epemuga, orduan eta handiagoa da ere titulu horien prezioetik interes-tasen gorabeheretara dagoen aldaketa.
- Kreditu-arriskua: errenta finkoko aktiboen jaulkitzaileak printzipala edo interesak ezin ordaintzearen arriskua da.
- Likidezia-arriskua: kapitalizazio baxuko baloreetan edo kontratazio-bolumen mugatua duten merkatu

txikietan inbertitzeak likidezia ken diezaieke inbertsioei, eta kaltegarria izan daiteke hori pentsio-fondoa saltzera, erostera edo bere posizioak aldatzera behartuta egon daitekeen prezio-baldintzentzat.

- Kanbio-tasaren arriskua: euroa ez den dibisatan izendatutako aktiboetan inbertitzearen ondorioz, onartu egiten da kanbio-tasaren gorabeheren arriskua.

Erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak, fondoaren inbertsioei eragin diezaieketen arriskuei dagokienez, erregularitasunez zainduko dituzte, besteak beste: fondoaren inbertsioen ratinga, merkatuen aldakortasuna, errenta finkoko aktiboen arrisku-diferentzialen -edo spreads deiturikoen- bilakaera, zorroaren iraupena, haren errendimendua eta haren erreferentzia-indizearena, zorroa dibertsifikatzeko legezko eta barneko mugak, kudeatzailearen eta gordailuzainaren arteko posizioen koadroa, kudeaketa- eta gordailuzain-komisioen legezko mugak, eta diruzaintzaren berdinkatzea.

Inbertsio-arriskua finantza-tresna eratorrietan. Finantza-tresna eratorrietan inbertitzeak arrisku gehigarri batzuk dakartza, eskurako inbertsioen arriskuei gehitu beharrekoak, palanka-efektuagatik, eta horregatik da bereziki sentikorra inbertsio hori azpiko aktiboaren prezio-aldaketekiko. Gainera, eratorrien merkatu antolatuetan kontratatu gabeko finantza-tresna eratorrien eragikerak arrisku gehigarriak ditu; hala nola kontrako alderdiak ez betetzea.

Eragiketak eginez gero finantza-tresna ez-kotizatuekin, kontrako alderdia izango da finantza-erakunde ospedun bat, ELGAN helbideratua, zuhurtziazko ikuskapenaren mende egongo dena eta era honetako eragiketak profesionalki egin ohi dituen. Fondoak bermeak edo zeharkakoak jasoko ditu, beharrezkoak kontrako alderdiaren arriskua erabat edo partzialki arintzeko.

Erakunde kudeatzailearen zeregina izango da zaintzea eratorrien bidez hartutako konpromisoa fondoaren inbertsio-printzipioen eta arrisku-profilaren barruan dagoela. Halaber, eginkizun izango du ere zaintzea finantza-tresna eratorrietako posizioek ez eragitea Fondoari haren ondarea gainditzen duen galera potentzial errealik. Erakunde kudeatzaileak kontrol-prozedura batzuk ditu eginkizun horietarako.

Finantzaz kanpoko arriskuak. Ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak (IGG)

Jasangarritasun-arriskua: ingurumen-, gizarte- edo gobernantza-gertaera edo -baldintza oro, gertatuz gero efektu material negatibo erreala edo posiblea izan dezakeena inbertsio baten balioan. Inbertsio-prozesuak kontuan hartzen ditu jasangarritasun-arriskuak inbertitzeari buruzko erabakiak hartzean. Horretarako, inbertsio-erakundeak erreferentziatzat hartzen du inbertitzen duen aktiboen jaulkitzaileek argitaratutako informazioa, baita IGG arriskuaren ebaluazioa ere, kalifikazio-konpainiek edo inbertsio-erakundeak bere metodologia erabilia eginikoa. Inbertsioen jasangarritasun-arriskua faktore hauen mende egongo da, besteak beste: jaulkitzaile-mota, jarduera-sektorea edo haren kokapen geografikoa. Horrela, jasangarritasun-arrisku handiagoa duten inbertsioek jaitziera bat eragin dezakete azpiko aktiboen prezioan, eta, beraz, negatiboki eragin diezaiekete fondoaren partaidetzaren balio likidagarriari. Inbertsio-erakundeak, fondo honetarako, kontuan hartzen ditu kontrako gorabehera nagusiak; hau da, inbertitzen den enpresek ingurumenean edo gizartean eragiten dituzten inpaktu negatiboak. Hala, kontuan hartzen ditu EBren arabera garrantzitsuenak diren adierazleak, bai ingurumen-alorrean (gas-isuriak, biodibertsitatea, ura, hondakinak...) bai gizarte-arloan (giza eskubideak, armak, generoa...). Erabilitako metriken inpaktua inbertsio-erabakietan txertatzen da, bazterketa- edo balorazio-irizpide gisa, edo tematiken bitartez eta jabetza aktiboa gauzatzean, halako moldez, non kontrola daitekeen inbertsioen bizitzan zehar gizartean edo ingurumenean izango den inpaktu negatiboa.

e) Ezarritako printzipioak betetzen direla gainbegiratzea eta jarraipena egitea.

Balore higigarriekin eta finantza-tresnekin (eratorriak edo eskurakoak) eginiko eragiketak zorroa eraginkortasunez kudeatzeko egingo dira, kontuan hartuz errentagarritasun-arrisku binomioa eta c) puntuan deskribatu diren aktiboak hautatzeko eta estrategikoki banatzeko irizpideak.

Erakunde kudeatzaileak prozedura egokiak ditu gainbegiratzeko inbertsio-politika eta haren arrisku-profila betetzen direla.

f) Inbertsio-politikaren indarraldia.

Inbertsio Printzipioen Deklarazio hau aplikatuko da 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera.